

TRUEBA' TAR ANTONIO



Sopuerta'n, Trueba bici izan zan etxea (Santa Gadea) eta Aldundiak ezarritako

BAZTERTUA?

Idazle batzuk, onak izan arren, baztertuak izaten dira, ez dabe lortzen izen aundirik elertiaren esparru zabalean, ez dira eltzen Parnaso- Mendiko jainko aundien maillara.

Sarritan beintzat katolikuak izan, katoliku lez idatzi eta katoliku lez bizi izan diralako izaten da. Orrez gaiñera gizarte-jokabidean eskoitarrak be izan dira, baiña gure azterlariak gauzak ondo bereiztu bear leukeez: katolikua izan naiz ez izan, eskoitarra naiz ezkertarra izan, ondo idatzia ondo idatzita dagoala esan bear da.

Ona emen adibide batzuk: Martzeliño Menendez y Pelayo'k oso ondo idazten eban, edestilari eta jakitun zeatza zan, eta bere izena oso gitxi entzuten da. Jose Maria Peman bere denporako idazleen artean punterengoa da, olerkari eta antzerkigille oso ona be bai, eta ez da bear dan lez goratuta ikusten. Bere izena gitxi entzuten da.

Olako zerbait jazo jako gure Trueba'tar Antonio'ri, Albia baratzean Benlliure'k egindako irudi ederra daukan gure olerkariari. Bere aldiko idazle erdeldunen artean gorengo maillakoa da, baiña aztertzaillak ukatu egiten dautsoe mailla ori. Zergaitik? Katolikua izan eta katoliku lez agertzen dalako eta politika-jokoan alderdi batera be makurtu ez zalako, bai, oster, Euskalerrriaren maitale ta laguntzaillak sutua. Eta zer diño? "Gozotxea" dala, negartia dala, ameslaria dala eta errealisten eta erromantikuen bitarte aretan ez daukala sendotasunik.

EUSKAL ARLOAN?

Benetako euskal zalea dogu Trueba, abertzaletasuna sortu barik egoan aldi aretan benetako foru-zalea. Egia da

bere idazki guztiak erderaz idatzi ebazala, egia da bere etxean ez ebala euskerea xurgatu. Ez eban beste askok izan dogun zorion ori izan. Baiña euskerea ikasten alegindu zan eta berba egiteko bestean ikasi be bai. Orretan ez da errudun.

Bere ipuiñak euskeratuta argitaratu dauz Otazua ta Asua'tar Benito adiskideak eta eskerrak beroneri emonbearrean gagoz.

ERRI-GIROA

Enkarterriko Montellano'n, 1819n. urteko gabon egunean jai() zan. Bere aita Trueba'tar Manuel eta bere ama Kintana'tar Marta. Jalo eta ille batzuk barruan Sopuerta'ra eroan eban, bere aitarenean-ira. Erri onetako eskolan irakurtan, ugarrez beteriko ikas-toki baten ikasi eban. Ez eban izan ba, umetatik beintzat, idazleen mundura sartzeko aukera aundirik.

Manuel bere osabeari "El Vasco" esaten eutsoen, bertsolaria zalako, baiña bertsolaria euskerazko doñuakaz eta erderaz. Pepa bere lengusiña trikitilaria zan.

GUDDA DALA-TA MADRID'ERA

Anton amabost urrekoka zala sortu zan karlostarren lengo gudea eta etxekoan bildurrak eraginda Madrid'era joan bear izan eban, bere osaba batek eukan burdin-denda baten saltzaillak lez lan egiteko. Barriro be ez dauka jakitunen bidera sartzeko aukerarik. Dana dala, berak bitarteetan zerbait ikasi egiten eban eta asko irakurri. Amar urte iraun eban biziera onetan.